



Oso gutxi falta zaigu dena egiteko

Bizitzea egokitu zaigun une hau historikoa dela jakitun izanik, gazteok ez dugu amore ematen. Aldaketa politikoa bultzatzen jarraitzen dugu irudikatu genuen herrialde hori lortzeko, hain zuzen ere gure bizitzei buruzko erabakiak gurekin kontatuz hartzen dituen herrialde horixe bera.

Krisiarekin hezi ginen eta prekaritatea besterik ez dugu ezagutzen bizitza-proiektu gisa, baina ederki dakigu nortzuk diren gure etorkizuna pikutara bidaltzen eta gure eskubideak lapurtzen ari direnak. Horiexek belauniko jartzea nahiago izan zuten, eta legez kontrako zor bat ordaintzea aukeratu zuten gure aberriaren subiranotasuna eta ongizatea zaindu beharrean; gure ikastetxeetan murrizketak ezartzen zituzten bitartean, krisiaren errudunei milaka milioi diru publiko oparitzen zieten horiexek dira; berberak esaten dute ezin bagara unibertsitatera joan, hori hala dela ez garelako behar adina saiatu, eta hau esan bitartean, bekak murriztu, tasak igo eta oparitutako masterrak jasotzen dituzte. Gure etsaiak ez dira beren herrialdeko gerratik eta espoliazioetik ihes egiten duten etorkinak, nahiz eta batek baino gehiagok horrekin nahastu nahi gaituen; aitzitik, gure etsaiak gorbatadun horiek dira, laneko eskubideak suntsitu eta miseriazko soldatak ezartzen dituzten eta esplotatzen gaituzten enpresa handiei mota guztietako pribilegio fiskalak eskaintzen dizkieten horiexek dira. Gure segurtasun-gabeziak ez du zerikusirik begizta horiekin, ezta banderekin ere; aitzitik, benetako demokrazia eskatzen dugunean, errepresioarekin eta zentsurarekin erantzuten duten horiexekin du zerikusia. Horiexek dira sektore estrategikoak eta zerbitzu publikoak pribatizatzen dituztenak administrazio kontseiluetan jubilatzeke, baita -espekulazioan aritzeko helburuarekin- etxebizitzarako eskubidea ukatzen digutenak ere. Horiexek estaltzen dute gure lana eta gure gorputzekiko erabakiak hartu nahi dituzte; gainera, beste zenbaitetan ez dizkigute gure hiriak erabiltzen uzten geure aisialdia gestionatzeko eta eskubide bihurtzeko.

Haien aurrean, hortxe dago beldurrik ez duen gaztedi prekariora. Alternatibarik ez zegoela esaten zuten, baina maiatzaren 15ean esnatu eta herrialde hau betiko aldatu zen. Ezinezkoa zela esan ziguten, eta itxaropenez blaitu genituen hautestontziak, eta herriz, instituzioak. Emakumeok bakarrik geundela konbentzitzen saiatu ziren, eta, elkarrekin geundela, argi utzi genuen martxoaren 8an gu gabe mundua gelditzen

zela. Baina luzera begirutzen dugu eta urrutira goaz, badakigu gure indar guztia beharrezkoa izango dela. Horregatik entzun behar diogu elkarri, ikasi, pentsatu eta elkarrekin ahaldundu; antolatu behar dugu guztiok batera bultza egiteko.

Helburu honekin sortu da Asaldura, aurrean daukagun antolamendu erronkari aurre egiteko eta nahi dugun herrialde hori geure eskuez eraikitzen hasteko tresna gisa. Gure aldamenekoekin, kideekin eraiki plazetatik, lantokietatik, institutu eta fakultateetan, sareetan eta eszenatokietan, gazteak parte hartzeko guneak sortuz gure eguneroko errealitatearen txoko bakoitzean. Jakin badakigulako arazo komunak aurrean erantzunak kolektiboa izan behar duela.

Urrats bat aurrera emateko unea da, duintasunaren eta alaitasunaren bandera altxatu behar dugu gorrotoa eta morrontza besterik eskaintzen ez duten horien aurrean. Oraintxe batu behar ditugu gure ahotsak, gure artean hitz egin behar dugu geure errealitateaz, eta ez dugu utzi behar beste batzuek erabakitzea zer den gaztea izatea eta zeintzuk diren gure gurariak eta arazoak, geure bizitzen boterea berreskuratzeko, feminismoak irakasten digun senidetasunetik abiatuz, eta aniztasuna indar gisa hartuz. Gazteok ere bota genuen Rajoy, baina oraindik bide luzea dugu ibiltzeko. Gobernu bakar batek ez du babestuko beste batzuek guretzat irabazi zutena adi ez bagaude, erakunde bakar batek ez digu ezer oparitzeko lehiatzen ez bagara; izan ere, historiak ederki erakutsi digu eskubideak kaleetan konkistatzen eta defendatzen direla.

Ardura ikaragarria da, baina ez dugu atzera egingo, jakin badakigulako gaztediaren indarririk gabe ezingo dela benetako aldaketarik egin. Eta harro sentitzen garen Espainia horretako Miguel Hernández olerkariak idatzi zuen bezala, «gaztediak bultzatzen du beti, gaztediak garaitzen du beti».

Aurrera, lagunok; zeren elkarrekin aurrera egiten badugu,
etorkizuna geurea izango baita.



2018ko azaroak 4